

Albuferetako kroskoa.

Alacant hiriko kostaldean, Las Huertas lurmuturrak babesturik, Albuferetako badia aurkitzen da. Ur baredun senadi txiki bat, Vitruviok portuak jartzeko gomendatzen dituenak bezalako.

Bere hondo hareatsuetan, arkeologia aztarna ugari aurkitzen dira, garai eta jatorri ezberdineko itsasontzien joan-etorriaren erakusgarri. Eskifaiaren eguneroko objektuen artean, anfora erromatar zatien pilaketa bat aurkitu zuten, Dressel 20 tipologiakoak, Guadalquivir ibaiaren ertzean ekoiztutako olioak garraiatzeko erabiliak.

Lehenengo mendeko hondoratze bat zen.

Krosko inguruan kokatutako jatorri ezberdinetako beste zeramika pieza batzuk, betikatar ontzia portu eremu batean aurkitzen zela salatzen zuten.

Harea artean, mahatsondo adar sorta trinkoak ikus zitezkeen, antzina bidaiari zehar kolpeak moteldu eta zama babesteko erabiltzen zirenak.

Aurkitu zirenean, gainazalaren zeuden anforek epifito estaldura bat zeukaten eta asko apurtuta zeuden. Hala ere beste asko ia kaltegabe zeuden eta garraiatzen zuten olioaren hondarrak ere bazeuzkaten.

Kroskoak egoera onean mantentzen zituen, soka, zerri, sare eta lastoa bezala materia organikoz egindako elementuak, batera arruntak ez direnak lurtean aurkitzen diren arkeologia aztarnetan.

Eta nola ez barkuko egurrak.

Ikerketa arkeologikoa kroskoaren eremua mugatzearekin hasi zen, hariz egindako eta hondora finkatutako koadrikula baten bidez. Koadrikula hau seinaleak jartzeko, antolatze eta indusketa erregistratzeko erabiltzen da.

Gero, xurgatze mahuka bat erabiliz, aztarnategia lurpetik ateratzen joan ziren.

Eta ikusgai ziren zamako anforak.

Arkeologoek, aztarnategiko gainontzeko elementuak bezala marraztu, argazkiak egin eta lurpetik atera zituzten forma zirkularreko kobrezko lingoteak azaldu ziren. Azkenean ikusgai gelditu zen ontziaren kroskoa.

Zehaztasunez identifikatu eta seinalezatu zituzten itsasontzi arkitekturari zegozkion elementu guztiak, urpean ikertu ahal izateko, eta xehetasunen ehunaka argazki atera zituzten.

Arkeologia aztarnak globo jasotzaileen bidez atera zituzten uretatik.

Lurtean jada, ikerketa prozesuaren azken fase gisa, materialak marraztu, tratatu eta aztertu zituzten. Ontziaren kroskoaren hondakinek Albuferetako badiako itsas hondotan hartzen dute atseden, jarduera berrien zain.